



EBAZPENA, 2020ko martxoaren 12koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Beasaingo hiri-antolamenduko plan orokorraren irismen-dokumentua ematen duena.

AURREKARIAK:

2020ko otsailaren 11n, Beasaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren berrikusketaren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zuen Beasaingo Udalak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorritz.

Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa jasotzen ditu eskaerak.

2020ko urtarrilaren 29tik 2020ko martxoaren 2ra, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen Dekretuak (urriaren 16ko 211/2012 Dekretua) 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zuen ingurumen-organoak, eta espedientean bildutakoa izan zen emaitza.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauxe da ingurumen-ebaluazioaren xedea: ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarri bat sustatzeko helburuarekin.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko analisia, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei lotuta, eta Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra dago plan horien artean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organok ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraiki, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskadiko Ingurumena Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehen. Beasaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua garatzea, ingurumenerako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

1.– Planaren Xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedea (aurrerantzean, Plana) 2007ko urriaren 16an behin betiko onartu ziren Plangintzako Udal Arau Subsidiarioetan ezarritako indarreko hirigintza-plangintza berrikustea da. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) udal-lurralde osoko hirigintza-antolamenduko tresna orokor bat da eta haren eginkizun nagusia da lurzorua sailkapena ezartzea, dagokion araubide juridikoarekin. Horrez gain, hiri-antolamendurako hartutako oinarriko elementuak zehazten ditu, baita garapenerako programa ere.

Planak bi aukera proposatzen ditu, dagozkien aldaerekin, hiri-lurzorua eta haren periferia antolatzeko, 0 aukeraz gain –egungo egoera adierazten du, indarrean dauden Arau Subsidiarioetako aurreikuspenak agortu gabe (2007)–, eta 1. aukeraz gain, zeina indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitako antolamendua erabat garatzean baitatza.

- 2. aukerak trenbidea desbideratzea eta hondartzak okupatutako lurzorua beste erabilera batzuetarako askatzea planteatzen du. Bi aldaera planteatzen dira: 2.1 indarrean dauden arau subsidiarioen garapena agortzen du, eta 2.2 indarrean dagoen planarekiko lurzorua okupazioa murrizten du.

- 3. aukera. Trenbidea eta N-1 errepidea desbideratzea planteatzen du, aurreko apartatuan deskribatutako bi aldaerekin, lurzorua okupazioari dagokionez: 3.1 eta 3.2 desbideraketak.

Beasaingo Udalak udalerriko HAPOri buruz aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, alderdi garrantzitsu hauek atera daitezke:

- a. Udalerriko etxebizitza-premiei dagokienez, HAPOren aurrerapenaren apustua da gaur egun Renfeko bideen hondartza-zonak okupatzen dituen lurzoruak sartzea, hiriguneko hirigune zentraletan zuzkidura-jarduketan bidez birgaitzea eta Beasaingo erdiguneko eremu periferikoak errematatzeke esku-hartzeak egitea, hiria eremu horietan degrada ez dadin.
- b. Renferen trenbide-hondartza eraldatzeko proposamenak, Beasain eta Ordizia arteko trenbidearen egungo trazatua lurperatuz, lekuz aldatuz edo goratuz, kalearen kota mailako lurzoruak askatzeaz gain, egungo kirol-eremuak Oria ibaiaren ertzarekin eta Igartzako kultura-gunea sortzen diren berdegune berrieke lotzea ahalbidetzen du. Egungo tren geltokia garraio intermodal berri bihurtzeko aukera ere ematen du.
- c. N-1 errepidearen trazatua desbideratzeko proposamenak Oria ibaiaren ertzak lehengoratzea ahalbidetuko luke, eta bide korridoreen arteko loturak konpontzen lagunduko luke, hirigunearen barrualdetik bide zirkulazioaren alternatiba gisa. Desbideratzea tunelean egin liteke ibilbidearen zatirik handienera, nahiz eta tuneleko lotuneak eta ahokoak egiteak lurzoru asko kontsumitzea ekar dezakeen. Proposamena, dena den, udal plangintzatik haratago doa, hainbat udalerrri eta Gipuzkoako foru administrazioa inplikatzen dituelako.
- d. Garin eta Arriaran landa auzoetako garapenei lehentasuna ematen zaie, Aratz-Matxinbenta, Astigarreta eta Gudugarreta auzoetan hazkunde itxaropenak mugatuz.
- e. Jarduera ekonomikoak hartzeko lurzoru-eskaintzari dagokionez, HAPOren proposamenaren arabera, industria-ezarpn garrantzitsuenek (CAF, Indar, Arcelor eta Fundiciones Eztanda) nahikoa lurzoru-erreserba kalifikatu dituzte beren jarduera garatzeko. Eskaintza gaur egun hutsik dauden lurzoru urbanizatuekin osatu da, eta lurralde-plangintza partzialak Beasaingo udalerritik kanpoko jarduera ekonomikoetarako hazkundeak aurreikusen dituela onartu da. Beraz, hazkunde-aurreikuspenak dagoeneko kalifikatuta dauden lurzoruetan proposatzen dira, egungo baliabideen galera dakarten birkalifikazioak saihestuz, bai industria-erabilerarako, bai hirugarren sektoreko jardueretarako.
- f. Aurrerapenean aintzat hartutako hiri-lurzoruaren azalera 2007ko Arau Subsidiarioetan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoru bano % 13,58 (222.459 m²) gehiago da, kategoria honetan urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruak sartu direlako, indarreko plangintzaren indarraldian garatu direnak. Horixe da Ittola I, Indar eta Iturralde Txiki garai bateko sektoreen kasua.
- g. Beasaingo HAPOren aurrerapenak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen du 10.786 m²-ko azalera, S3-Ugartemendi sektore zaharraren magalaren behealdean dagoena. Bizitegi gisa sailkatzen da, babes publikoko etxebizitzen eskaintza mantentzen laguntzeko. Eremu horren azalera % 85 murrizten da indarrean dauden arau subsidiarioetan aurreikusitakoaren aldean (73.541 m²-tik 10.786 m²-ra), Beasaingo hirigunetik hurbilago dauden eremuen garapenari lehentasuna ematea erabaki baita.
- h. Lurzoru urbanizaezinari dagokionez, natura-ondarea zaintzea da irizpide orokorra, Arriarango eta Ibaiederreko urtegien balioak eta natura-intereseko eremuak indartuz. Hiri-lurzoruaren inguruan proposatzen da zaharberitutako guneko parke gisa Usurbeko magaleko geldoen zabortegea birgaitzea eta Sagastiguti parkearekin lotzea.

2.- Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasagarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasagarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a. Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b. Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
- c. Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua iraunkortasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d. Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e. Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f. Ondare geologikoa artatzea.
- g. Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea.
- h. Natur baliabideen erabilera jasagarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i. Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j. Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k. Klima-aldaketaren aurreko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- l. Arrisku naturalak gutxitzea.
- m. Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuta.

3.– Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

HAPNren Berrikuspenaren aplikazio-eremu geografikoa Beasaingo udalerrria izango da, nahiz eta zenbait alderdik udal-mugartea gainditzen duen lurralde baten gaineko eraginak aztertzea eska dezaketen, bereziki Planak hautatutako aukeraren barruan trenbidearen eta N-1 errepidearen egungo trazatuak desbideratzea sartzen badu.

Beasaingo udal-eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta.

Aipatutako lehenengo guneen artean Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (abenduaren 13ko 42/2007) aplikatuz eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat

du ten guneak daude. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legeria da.

Arau horren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren babespean dago Agauntza ibaia, Oria ibaiaren ezkerreko ertzetik isurtzen dena eta Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) sartuta dagoena (ES2120005). Natura 2000 Sareko eremu horri aplikatu beharreko araudia, HAPOk aintzat hartu beharko duena, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuan, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzekoan agertzen dena da. Martxoaren 17ko 34/2015 Dekretua ere hartu behar da aintzakotzat, ingurune hidrikoari lotuta dauden Kontserbazio Bereziko Eremuetarako (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak.

Horrez gain, udal-mugartearen eremuan ingurumen-balio nabarmenak dituzten beste gune batzuk ere badaude; hona hemen zer katalogo eta inbentariotan dauden jasota:

- a. Murumendi mendigunea interes natural multifuntzionalerako espaziotzat jotzen da EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Zatik Planean. Era berean, Aralar-Ernio-Gatzume-Izarraitz korridore ekologikoaren lotura-eremua da. Murumendi mendiko harkaitzak interes nabarmeneko flora du. Honako hauek hartzen ditu: Kantauri isurialdean ezagutzen den *Saxifraga losae* populazio bakarra, *Narcissus varduliensis* endemismoa, *Narcissus gr. asturiensis*, *Rhamnus alpina*, *Laserpitium nestleri*, *Saxifraga paniculata* eta *Linaria supina*, beste landare interesgarri askoren artean.
- b. Arriaran eta Ibaieder urtegiak EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren inbentarioaren parte dira (III. taldea).
- c. Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Sarearen barriuan eta bertatik kanpo.
- d. EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- e. Mehatxatutako flora edo faunako espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak, Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan jasotakoak. Oria Garaiko KBEa eta Ibaieder ibaia bisoi europarrarentzat interes bereziko eremutzat hartzen dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoan espezie hori kudeatzeko planean xedatutakoaren arabera.
- f. EAEko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren eta paisaien katalogo eta gidalerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.
- g. Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti-fauna babesteko eremuak. Agindu horren bidez, aurreikuspenean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak –non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira– argitaratzen dira.

Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko, espazio horiek korridore ekologikoekin eta paisaiako elementuekin eta lurreko eremuekin osatzen dira, baldin eta funtsezkoak badira migrazioarako, banaketa geografikorako eta basafauna eta basafloreko

espezieen populazioen arteko truke genetikorako (ur-ibilguak, landaredi-masak, etab.). Alderdi horiek ingurumen-azterketa estrategikoan aztertu beharko dira.

Era berean, ingurumen-eremu garrantzitsuak dira balio agrologiko handia duten lurzoruak, jabari publiko hidraulikoa eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan ezarritako Babestutako Eremuen Erregistroko beste eremu batzuk, arestian aipatutakoan artean sartuta ez daudenak, Beasaingo udal-mugaratean (azaleko uren hartuneak, ingurumen intereseko ibai-tarteak eta bainu-eremuak), bai eta, hala badagokio, lurralde-plangintzatik (Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala) edo sektore-plangintzatik (EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala) eratorritako babes-araubideren bat duten eremuak ere.

Kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremuen artean daude kultura-ondarearen parte izategatik kalifikatu eta inbentariatutako eremuak edo ondasunak, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere. Beasaingo udalerrian ondare eta arkeologia elementu garrantzitsuak daude, lurraldeari interes handiko balio kultural eta etnologikoa ematen diotenak. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: Done Jakue bidea eta bera osatzen duten elementu arkitektonikoak, Murumendiko estazio megalitikoko elementu arkeologikoak, Moruko herrixka, Mariko kobazuloa eta Igartzako monumentu multzoa.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten edo izan ditzaketen eremuen artean honako hauek aipatu ahal dira:

- a. Plangintza hidraulikoak Oria, Eztanda eta Agauntza ibaien arroetan uholde-arazoak detektatu ditu, hiri-lurzoruetan eta Ugartemendiaren etorkizuneko garapenean eragina dutenak.
- b. Planeko garapen-eremuan, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen kokaleku inbentariatu bat dago; beraz, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak aurreikusitakoa aplikatuko da gune horietan.
- c. Apartatu horretan sartu behar dira, halaber, urriaren 16ko 13/2012 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa) 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak.

4.– Jarduketak lokalizatzeko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan ondorio esanguratsuak dituzten jarduketak kokatzeko eremu desegokitzat joko dira aurreko apartatuan jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Urpean gera daitezkeen eremuetako hirigintza-garapen berriak ere, a priori, desegokiak izan daitezke. Planak planteatzen dituen proposamenen arabera, garatu beharreko eremu batzuek uholde-arriskua dute. Eremu kontsolidatuak dira, bai eta indarreko arau subsidiarioetan aurreikusitako eraikigarritasun osoa oraindik garatu ez den beste eremu batzuk ere. Planean jasotako erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikuluan (apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua) eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoa berrikusteko araudiaren 40tik 42ra bitarteko artikuluetan (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak onartutakoa) ezartzen diren mugekin.

Hirigintza-garapen berriak eta azpiegitura berriak hartzeko, garrantzi gutxiko beste espazio batzuk lehenetsi beharko dira (naturaren, kulturaren edo ingurumen-arriskuaren ikuspegitik), hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

5.– Egindako kontsultei emandako erantzunen azterketa laburra, ingurumenaren aldetik

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsultazapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

Kultura-ondareari dagokionez

Kartografiak kontuan izan beharko du Kultura Ondarearen Zentroko kultura-ondasunen zerrendetan jasotako kultura-elementu guztien –Donejakue bidea barne– kokapena eta mugaketa. Azterlanak planteatutako alternatibek kultura-ondarean dituzten zuzeneko edo zeharkako eraginak baloratu beharko ditu. Hirigintza-antolamenduak, eta, zehazkiago, babes-araudiak, kontuan hartu beharko ditu Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen zehaztapenak, babes ertain eta bereziko ondasunak babesteko araubideari eta kultura-ondasunen eta haien babes-ingurunearen ikusizko kutsadurari eta kutsadura akustikoari buruzkoak.

Natura-ondareari dagokionez

- a. Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), ES2120005, –Planak baldintzatzaile gainjarriztat hartzen du "paisaia-intereseko zonak dituzten lurzoruak" kategorian–, lurzoru urbanizaezinaren babes bereziko kategorian sartu behar da, azpikategoria espezifikoa batean, edo gainjarritako baldintzatzaile gisa mantendu behar da, azpial espezifikoa batean, eta, edonola ere, aplikatu beharreko arauak eta kautela-neurriak adierazi behar dira.
- b. Ibaieder ibaia Beasaingo udal-mugartearen ipar-mendebaldeko mugan dago, eta bisoi europarrarentzako interes bereziko eremuen (IBE) artean dago, Gipuzkoako espeziearen kudeaketa-planaren arabera. Horregatik, funtsezkoa da udal-plangintzak eremu hori bereiz tratatzea, kudeaketa-plana aplikatzearen ondoriozko baldintzei erantzun ahal izateko. Horretarako, HAPOko Babes Bereziko kategorian jaso behar da HEA, edo, bestela, gainjarritako baldintzatzaile espezifikoa gisa. Hori kontuan hartu behar da Aratz-Matxinbenta eremuan garapen berriak egiteko proposamenetan.
- c. Beasaingo udalerrian hegazti-faunaren babes-eremu batzuk daude, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren arabera mugatuta, eta antolamendu-kategorien gainjarritako baldintzatzaile gisa sartu beharko lirateke.
- d. Hauek dira natura-ondarean eragin handiena izan dezaketen Planeko proposamenak:
 - N-1 errepidea desbideratzeko proposamenak harizti azidofilo-baso misto atlantikoa duen zuhaitzi bat zeharkatzen du. Tuneleko trazatuak azaleko eraginak gutxituko litzuzke, nahiz eta tunelerako sarrera eta irteera egokitzeak ere eragin negatibo garrantzitsuak eragin litzakeen.
 - S-3 - Ugartemendi garatzeko proposamena Oria Garaia KBEan sartu da, eta bat dator 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak izeneko Europar Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatekin, bai eta harizti azidofilo-baso misto atlantikoarekin ere.
 - A48 - Ittola II eremuaren garapenak eragina izan dezake 91E0* lehentasunezko Batasunaren intereseko habitataren presentzia identifikatu den ibai-ibilguan (haltzadi kantauriarra).
 - A47 - Aratz-Matxinbenta eremuan proposatutako mugaketak esan nahi du nukleo txiki hori handitu egingo dela 91E0* lehentasunezko habitatarekin bat datozen lurretan (haltzadi kantauriarra), Ibaieder ibaiaren zati batean, zeina, adierazi den bezala, bisoi

europarrarentzako interes bereziko eremua baita, handitze hori harizti azidofilo-baso misto atlantikoarekin bat dator.

- Sagastiguti parkea barne hartzen duen Espazio Libreen Sistema Orokorraren barruan, harizti azidofilo gisa kartografiatutako orban zabalak daude, baso misto atlantikoa.

Aurreko apartatuetan aipatutako landare-formazioak babestu behar dira, halaxe agintzen delako honako hauetan: 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak

Bide- eta/edo trenbide-azpiegitura berrien kasuan, edo lehendik daudenak aldatzean, bereziki garrantzitsua da iragazkortasun-neurriak aztertzea. GI-632ren kasuan, gainera, kontuan hartuko dira faunaren harrapaketei dagokienez azpiegiturak gaur egun dituen arazoak.

Nekazaritza eta basogintzako baliabideei dagokienez

Egokitzat jotzen da Planean ezarritako lurzoru urbanizaezinerako erabilera-araubidea berrikustea, EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSarekin bateragarria dela bermatzeko. Eskatzen da lurzoruan eta nekazaritza-jardueretan eragin txikiena izango duen antolamendu-aukera aukeratzea, eta ezinbestekotzat jotzen da Azterlanak ebaluatzea nekazaritzako lurzoruen okupazioagatiko eragina. Balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruei eragingo zaiela kontuan hartuta, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Lurzoruaren kutsadurari dagokionez

Planak behar bezala adierazi du badirela historikoki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lursailak, etorkizuneko erabiltzaileentzat edota ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenak. Lurzoruaren kalitate-adierazpena izapidetu beharko da, baldin eta Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada.

Uholdeak izateko arriskuari dagokionez

EAEn uholde-arriskuari buruz egindako azterlan eta planetan, eta Beasain udalerrriaren kasuan zehazki, Oria eta Estanda ibaietan 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanak identifikatu dira (ARPSI ES017-GIP-14-1 Beasain/Lazkao/Arama/Itsasondo).

Arriaran urtegia, 3,5 Hm³-ko edukiera eta 57 m-ko altuera duena, "A kategorian" sailkatuta dago: hausturak edo funtzionamendu okerrak hiriguneetan edo funtsezko zerbitzuetan eragin larria izan dezaketen presak, eta kalte material edo ingurumen-kalte handiak eragin ditzaketenak.

6.– Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Planak indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoak aldatzen dituzten zehaztapenak jasotzen ditu. Ingurumen-ebaluazioak Planean sartzen diren jarduketa-proposamen berriek edo lehendik daudenen aldaketek eragindako ondorio espezifikoak izango ditu ardatz.

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia bildu beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

- 1.– Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1.– Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2.– Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3.– Planifikatzeko aukerak
- 2.– Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1.– Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2.– Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
- 3.– Ingurumen-efektuak
- 4.– Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
- 5.– Ingurumena zaintzeko programa
- 6.– Ingurumen-laburpena
- 7.– Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak -aurrerantzean, Azterlana- behean azaltzen diren alderdiak landu behar dituela, bakoitzari ondoren adierazten den zabaltasun eta zehaztasuna emanda:

6.1.– Planaren deskribapena

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterlanean HAPOaren berrikuspenarekin lortu nahi diren helburu nagusien laburpen txiki bat jasoko da. Azterlanak era espezifikotan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian Planaren gaintetik dauden planak edo programak identifikatuko dira. Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien determinazioak eta aurreikuspenak azaletik deskribatuko dira, baita Planari aplikatzen zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta determinazioak ere.

c. Hala badagokio, ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikagarri zaizkion hierarkian Planaren gaintetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira.

d. Arauetan eta Planarekin hierarkia-loturarik ez duten bestelako planetan edo programetan finkatutako ingurumen-babeseko irizpideak, helburuak eta zehaztapenak adieraziko dira, aplikatu behar badira.

e- Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Beasain-Zumarragako (Goierri) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.

- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzekoa. Dekretu horretan Oria Garaia KBEa izendatzen da (ES2120005). Bereziki, KBEaren izendapenarekin ezarritako kontserbazio-helburuak eta -neurriak adieraziko dira, aplikatu beharrekoak direnak eta/edo planean sar daitezkeenak.

- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan Bisoi europarraren (Mustela lutreola. Linnaeus, 1761) kudeaketa-plana.

- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen zonei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- Ekainaren 25eko 4/2015 legea, lurzoruaren kutsadura prebenitzekoa eta zuzentzekoa, 23. eta 31.4 artikulua.
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren (EAEko hots-kutsadurari buruzkoaren) 36. artikulua eta hurrengoak.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Hautatutako planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala zehaztu behar da, plana formulatu aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Azterlanak xehetasunez deskribatuko ditu Planak indarrean dagoen hirigintza-antolamenduari dagokionez sartzan dituen jarduketa berriak eta aldaketa edo xehetasunak, ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan ditzaketanak, horiek garatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak kontuan hartuta.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da. Bereziki, arreta berezia jarriko da hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berrien proiektuak edo ingurune fisikoaren eraldaketa garrantzitsuak dakartzaten proiektuak gauzatzeko aurreikuspenetan.

c. Planean aurreikusita dauden eta ingurumenean eragina izan dezaketen jarduerekin eta proiektuekin lotutako ekintzak deskribatu eta lokalizatuko dira. Ekintza eta proiektu garrantzitsuenetatik hasi eta gutxienekoetara hierarkizatuko dira, kokapen zehatza, izaera, neurria eta baliabide naturalen kontsumoa kontuan hartuta. Horrela deskribatutako Plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, planaren aurreikuspenen garapena zehaztuko da, plangintzaren ondorengo faseak aipatuz, bai eta haren zehaztapenak zehazteko tresnak ere. Era berean, garapen-tresna eta / edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela aurreikusiko da.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, eta, hala badagokio, planean jasotako jarduera eta proiektuetarako zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa eskala egokian islatuko da kartografian, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Gutxienez eremuaren mugaketa eta jardueren kokapena jasotzen duen informazio kartografikoa sartu beharko da, pdf eta shape formatuetan.

6.1.3. Planifikatzeko aukerak

a. Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak azaletik deskribatuko dira. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. 0 alternatiba edo esku ez hartzekoa kontuan hartuko da, eta HAPOn proposamenak aplikatzen ez badira, jarduera-eremuko alderdi garrantzitsuen balizko bilakaera hartuko da erreferentziatzat.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta horietatik eratorritako Planeko proiektuen eta ekintzen arteko aldeak zehaztuko dira.

c. Aztertutako plangintza-aukerak baztertzeko eta proposatutako aukera azkenik hautatzeko arrazioen laburpena ere bilduko da.

d Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

6.2.– Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

Azterlanak Planak eragindako eremuan ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu. Karakterizazio hori elementu abiotikoei eta biotikoei buruzkoa izango da, bai elementu mota bakoitzaren sektore-ikuspegitik, bai horien interakzioen ikuspegitik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanetko.

Ebaluazio-eremuaren ingurumen-karakterizazioan, bereziki azpimarratuko dira aurreikuspen berriek eta indarrean dagoen antolamenduari dagokionez Planak egiten dituen aldaketek eragin ditzaketenak.

Ingurunearen kalitatearen alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo erreferentziako beste dokumentu batzuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, izenburua, urtea, egiletza eta, hala badagokio, lana osorik kontsulta daitekeen lekurako esteka adierazita.

Azterlanak eskala egokiko planoak izango ditu, ingurunearen aldagaiak islatuta.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota. Azken faktore horri dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako eta babestutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

Sare hidrografikoari dagokionez, Beasaingo Udalak bidalitako dokumentazioan, azaleko urak babesteko gainjarritako baldintzen barruan, ez da jasotzen udalerriko sare hidrografiko osoa. Kontuan hartu behar da EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzekeko Lurraldearen Arloko Planaren kartografian berariaz jasota egon edo ez, ibilgu natural guztiak jabari publiko hidraulikoa direla, eta, beraz, gainjarritako baldintzatzaile horren osagaitzat hartu behar direla.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da, hala nola mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko tokiak, korridore ekologikoak, etab. Egungo elementuek duten kontserbazio-egoerari, interes-mailari, kalteberatasunari, presioei eta egungo mehatxuei buruzko datuak emango dira, Plana gauzatzeko areagotu baitaitezke.

Hasierako dokumentu estrategikoak Beasain udalerraren ezaugarri nagusien laburpen bat jasotzen du. Oro har, natura-ondarearen alderdiei dagokienez egokitzen jotzen da, baina beharrezkoa izango da emandako informazio batzuk zehaztea, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean adierazitako alderdiak kontuan hartuta (espedientean dago jasota).

Natura babesteko araudiaren arabera babes-figuraren bat duten espazioei eta eremuei dagokienez (ebazpen honen 3. apartatuan aipatzen dira), kasuan kasuko kudeaketa-planetan jasotako informazioan oinarrituta eta, ahal den neurrian, eskuragarri dauden datu eguneratuenekin hornituta, Azterlanak honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

- Espazio edo eremu horren izendapena eta babesa eragin duten balio eta elementu nagusiak deskribatuko dira (habitatak eta basoko flora eta faunako espezieak, konektatzeko funtzioa duten paisaiako elementuak, etab.).
- Elementu horiek espazioan duten kontserbazio-egoeraren eta jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusien ebaluazioaren laburpen bat sartuko da.
- Era berean, helburuen eta kontserbazio-arauen laburpen bat jasoko da espazioaren kontserbazio-elementuei dagokienez.
- Babestu beharreko aldeetan eta eremuetan kudeatzaile-lanak egiten dituzten administrazio-organoak eta -unitateak identifikatuko dira.

C Paisaia. Kontuan hartuko dira paisaia-intereseko guneak, hala nola mugarrak bisualak eta pertzepzioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen beste elementu batzuk. Paisaia-katalogoak erabiliko dira, halakorik egonez gero.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen biztanleguneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da. Kontuan hartuko dira ondare immaterialeko elementuak.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labor-labor jasoko dira planak dakartzan aldaketetatik eratorritako ingurumen-alorreko elementu, prozesu, arazo eta arrisku esanguratsuenak, ingurumen-ebaluaziorako prozesuan garrantzitsuak izango direnak. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, bai eta eragina jasateko probabilitatea duten alderdietan ere, kontuan hartuta Planaren jarduketan eta proiektuen ondoriozko ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumenaren aldetik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenen garapena horiekin bateragarri egiteko; horretarako, kontuan hartu beharko du Ebazpen honen 3. apartatuan adierazi diren eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela.

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arrisku guneak eta eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzeko.

6.3.– Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, Azterlanaren 1.2.c apartatuan identifikatutako Planeko ekintza bakoitzak izan ditzakeen ondorioak identifikatu, ezaugarritu eta baloratu beharko dira, esleitutako kodea berriaz aipatuta, azterlanaren 2. paragrafoan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuen gainean. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertuko dira, baita sor daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazoak eta -arriskuak ere.

Ezaugarrien deskribapenean zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektua den, honako hauek berezita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

b. Azterlanak bereziki jorratu beharko du jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan egindako aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

c. Hala badagokio, zehaztu beharko da atzemandako efektuak/ondorenak Natura 2000 Sareko lekuetan eta Azterlanaren 2.1.b apartatuan jasotako beste babesgune batzuetako elementuak – zaindu beharrekoak– hartzen ote dituen eraginpean.

d. Halaber, hala dagokionean, argi eta garbi adieraziko da zer efektu eragin dezakeen ekintza bat baino gehiago bateratzeak. Era berean, edozein ingurumen-efektu bereziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

e. Horrela deskribatutako Planaren ondorio bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterlanaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

f. Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Beasaingo HAPOn eremuko eremu babestuen artean Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremua dago. Bestalde, HAPO tramitatzean espazio horretan ukipen nabarmena sor dezakeen proposamen bat egikaritzea erabakitzen bada, proposamen hori behar bezala ebaluatuko da, abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 ezarrita dagoenaren arabera, eta kasu horretan, Azterlanak barnean hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan jasotzen den apartatu espezifiko, Natura 2000 Sareko guneek jasan ditzaketen ondorioen ebaluazioari buruzkoa.

Oria Garaia KBEan eta interes bereziko beste eremu batzuetan kontserbatu beharreko elementuen gaineko eraginak ezaugarritu eta balioetsiko dira. Balorazio hori egiteko, kontuan hartuko dira 2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-egoera, presio eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Apartatu hau xehetasun-maila zehatz batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatu eta afekzioaren muntari buruzko balizko ziurgabetasunak argitu ahal izateko.

- Azterlanak baloratu beharko du ea proposatutako jarduerak bat datozen lurraldearen konektibitate ekologikoa lortzearekin, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 3. artikuluan zehazten den bezala. Zehazki, ebazpen honetako 3 zenbakiko apartatuan zehaztutako biodibertsitaterako garrantzi handiena duten naturaguneen arteko lotura hartuko da kontuan.

- Uholde-arriskuak hirigintza-garapenean izan dezakeen eragina aztertuko da, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, zaintza-eremu urpekorreko erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterketa hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, horiek ere aurkeztu beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.

- Kutsatuta egon daitezkeen kokagunetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozko eraginak aztertuko dira.

- Etorkizuneko hirigintza-garapenen kasuan, aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, indarreko araudian araututako metodologia erabiliko da, betiere ebaluatzen den antolamendu motara egokituta (egiturazkoa edo xehatua).

g. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eragina jasan lezakeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:

Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri bereziak izatea.

Aurkako ingurumen-baldintzak egotea, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrek edo muga-balioak gainditzeko moduan.

Planak ingurumen-arriskuak zein heinetaraino sortu edo areagotu ditzakeen.

h. Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilia, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio edo efektu horien iragarpenean dagoen ziurgabetasun-maila adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, saiaturiko da lotzen plan edo programaren gerta litezkeen faseekin.

d. Adieraziko da ea antzemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorio edo efektuak hierarkizatu egingo dira, haien garrantzi erlatiboa nabarmenduta.

6.4.– Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, Azterlanaren 3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondoren kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusita dauden neurriak deskribatuko dira. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Helburu izango dute natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoaren aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterlaneko 3. apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Oria Garaia KBEan eta udalerriko beste eremu batzuetan kontserbatu beharreko elementuak babesteko neurri espezifikoak, natura-ondarea kontserbatzeko eta konektibitate ekologikorako interes berezia dutenak. Ildo horretan, ebazpen honetan aipatu diren gune eta espezie mehatxatuak babesteko arautan eta planetan aurreikusitako babes-neurriak eta

kontserbazio-jarduerak zehaztuko dira, detektatutako ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo zuzentzeko aplikagarriak direnak, hala badagokio.

- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatueta aipatu diren planetan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaietako eta Erreketako Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki atal arauemaileko 44. artikulutik 46. artikulura zehazten diren irizpideak, baita arloan eskumena duen organoak gai horren gainean emandako txostenak ere.

- Oro har, garrantzitsutzat jotzen da, garatzekoak diren eremuak antolatze planteatzen diren jarduketari dagokienez, udalerriko azpiegitura berdearen funtzionaltasuna ziurtatzea, bereziki gaur egun konprometituta dagoen eremuetan, beharrezko prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak hartuta. Bide- eta/edo trenbide-azpiegitura berrien kasuan, edo lehendik daudenak aldatzean, bereziki garrantzitsua da iragazkortasun-neurriak aztertzea. GI-632ren kasuan, gainera, kontuan hartuko dira azpiegiturak fauna harrapatzeari dagokionez gaur egun sortzen dituen arazoak, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak bere txostenean nabarmentzen duen bezala.

- Dauden ibilguen edo galerien estalduren kasuan, horiek kentzea aztertuko da, eta, ahal den guztietan, estalki horien orde zaire zabaleko ibilguak jarriko dira. Ahal dela, dauden estaldurak pixkanaka kenduko dira, batez ere 5 km² baino gehiagoko arro drainatzaileak dituzten ibilguetan, eta 5 km² baino gutxiagoko arro drainatzaileak dituzten ibilguetan dauden estaldurak behar bezala dimentsionatu dira, baldin eta hiri-garapen intentsiboa oso finkatuta badago.

- Ibai-ibilguen inguruan dauden eta eraikuntza garatu eta finkatu behar duten hiri-eremuetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2015-2021 Plan Hidrologikoan ezarritakoa bete beharko da, Ibai-ertzak eta ibai-korridorearen ekologia- eta paisaia-dibertsitatea eta -funtzionaltasuna laguntzen duten elementuak aldatzea eta artifizializatzea saihestuz eta, ahal den guztietan, lehengoratzeko, berreskuratzea eta hobetzea sustatuz.

- Planaren garapena paisaia integratzeko irizpideak zehaztuko dira, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko gainazalak ezarri, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatze eskuliburua» argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak kontuan hartuz. Ildo horretan, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Era berean, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena ezabatzeko eta saihesteko.

- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (21/2013, abenduaren 9koa) eskatzen duenez, ingurumen-txosten estrategikoak barnean hartuko ditu hainbat neurri, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBEk egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koadernoa» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko (IHOBE)».

c. Proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren adieraziko da, eta berariaz zehaztuko da neurri horiek planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan aplikatzea komenigarri edo egingarria denean.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzera bideratuko dira:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak behar bezala ezartzen diren gainbegiratzea.

- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.

- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihestu edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.

- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak Azterlanaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak Azterlanean proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita –kasu bakoitzean– datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

6.6.– Ingurumen-laburpena.

a. Deskribatuko da zelan txertatu ingurumen-alderdiak Planean. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, Azterlanaren 1.1 apartatuan deskribatutakoak.

b. Aztertu egingo da, gainera, planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko zenbaterainoko arriskua dagoen eta beharrezko argudioak emango dira, honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela efektu esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori zertzeko, Azterlanaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

c. Modu espezifikoan aztertu bada ea eraginik izan dezakeen Natura 2000 Sareko guneetan edo beste babesgune batzuetan, hari buruzko sintesi bat jasoko da apartatu honetan, zehaztuta nola galarazi edo murriztu den horrek eragitea gunea hautatzea eta babestea eragin duten balio naturistikoei, kontserbazio-helburuei eta Natura 2000 Sarearen koherentzia globalari.

6.7.– Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterlanak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaitako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpenari egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7.– Jendurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendurreko informazioaren izapidearen eraginpean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera; gutxienez, 45 egunez.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen den ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Eusko Jaurlaritza.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. Osasun Saileko Osasun Publikoko eta Adikzioen Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza.

-Ura: Uraren Euskal Agentzia

- Kantauriko Ur-konfederazioa

-Ihobe. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.

- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saila Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

-Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.

- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarte

-Eguzki. Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte.

8.– Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egin beharko dute Azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du.

Azterlanean pertsona horiek identifikatu beharko dira, eta haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia

entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jaso beharko dira. Pertsona horiek Azterlanaren edukiaren eta fidagarritasunaren erantzule izango dira, administrazioak modu frogagarrian emandako datuei dagokienez izan ezik.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1.– Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek behar den koherentzia errespetatu beharko dute, bai haien artean bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada; hartara, ez da oztopatuko erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana, baizik eta erraztu egingo da.

2.– Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoan apartatuak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, apartatu batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).

3.– Beharrezkoa balitz, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.

4.– Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten apartatuetan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georeferentziatuta.

Analisi tekniko egokia errazteko, bistartzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da *shape* formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilia), zeinak ezingo baitu 10 Mb gainditu. Shape fitxategi horretan, 4 fitxategi hauek ZIP fitxategi batean entregatuko dira konprimatuta: .shp, .shx, dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea: ambito_ejemplo.shp, ambito_ejemplo.shx, ambito_ejemplo.dbf, ambito_ejemplo.prj.

6.– Plano guztiak kodea eta izenburua jarrita identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.

7.– Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu beharko da, horretan oinarrituta egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.

8.– Testuetan zehar aipatutako eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak aurkeztu beharko dira dokumentazioarekin batera. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.

9.– Informazio jakin bat dokumentuko apartatuaren baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientearen zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketa onduz jatorrizko dokumentuan ezeztatutako edo ordezkaturako jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Aipatutako jarraibideak betetzen ez badira eskaera bat zuzentzeko, litekeena da izapide gehigarri bat behar izatea, kontraesaneko edo inkongruente izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.

10.– Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatu daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta inprimakiak erabilia; zehazki, helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>

11.– Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten bada, gehienez, 30MB izango ditu, eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartzeko.

12.– Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako apartatuetako bakoitza zer orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.

13.– Organo sustatzaileak, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. - Ebazpen hau Beasaingo Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 12a.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria
Director de Administración Ambiental



IVAN PEDREIRA LANCHAS